



**JIMENEZ, Estefanía; GARMENDIA, Maialen;
CASADO, Miguel Ángel (Coords.)**

**Entre selfies y whatsapps. Oportunidades y
riesgos para la infancia y la adolescencia
conectada**

Barcelona : Editorial Gedisa, 2018

318 p. : 21 cm

ISBN: 978-84-16919-87-1

Interneten konektatutako haur eta nerabeen aukera eta arriskuak

Internet geroz eta gehiago darabillkigu gure ohiko giza harremanetan, lagunekin edo familiarterkoekin komunikatzeko, musika entzun, bideoak ikusi edo sare sozialetan aritzeko. Gazteek zer esanik ez, geroz eta gehiago darabilte internet eta adin txikiagotik hasten dira gainera berau erabiltzen. Baina segurtasunez erabiltzen al dute haurrek internet? Zein neurritan daude haur eta gazteak arriskuen eraginpean. Baina ez al dizkie internetek aukera ugari irekitzen beraiei? Zein neurritan ari dira aukera horiek aprobetxatzen ala kalteak sufritzen? Etengabe aldatzen ari den ingurune digitalak haur eta gazteengan dituen ondorioak ulertzeko, ikerketak egitea behar beharrezkoa dela esaten du Sonia Livingstone ikerlariak.

Liburu honek, haur eta gazteek gaur egun egiten duten interneten erabilera eta bere segurtasunari buruzko diagnosi eguneratua eskaintzen digu, guztion interesekoa bihurtzen dena, gai honek duen hedapena eta egunerokotasunagatik. Gazteen interneteko erabileraz egindako ikerlanetan bildutako datu fidagarri eta zehatzetan oinarritutako irakurketa bat egiten da, ebidentzia zientifikoetan oinarritua. Eta gainera, liburuan herrialde ezberdinetako adituen hausnarketak biltzen dira.

Sonia Livingstone *London School of Economics and Political Sciences* 'ko ikerlaria *EUKids Online* izeneko ikerketa sarearen gidaria denak, egoeraren diagnosi orokor bat egiten du liburu honetako lehen kapituluari. Jarraian datozen kapituluari, bere lankidetzan ari diren hainbat ikerlari eta aditu europar eta latinoamerikarrek idazten digute, herrialde ezberdinetako haur eta gazteek interneten zer nolako erabilera egiten duten eta internet bidez beren artean gertatzen ari diren interakzioak nolakoak diren azalduz.

EU Kids Online ikerketa sare europar bat da, komunikazio eta informaziorako teknologia berriek adin txikiengan duten eragina ikertzen duena. Europako herrialde ezberdinetan ikerketa zehatzak egiten ditu eta emaitza konparagarriak bilduak ditu; bai herrialdeko alderaketak egiteko eta baita urteko bilakaera jarraituak egiteko baliagarriak direnak. Era honetara, haur eta gazteen internet erabilerak zer joera hartzen ari den ikertzen da. Helburu nagusizat dute, internetek haur eta gazteei eskaintzen dizkien aukera eta arriskuak modu zientifikoan aztertzea. Europar Batzordeak diruz laguntzen du ikerketa sare hau, *Safer Internet Programme*aren bidez azken zortzi urteetan eta gaur egun *Better Internet for Kids* izeneko programaren bidez. *EUKids Online*ek Europako 33 herrialde ezberdinetan dauka presentzia eta beren ikerlanek eragin nabarmena izan dute Europar Batasuneko politiken garapenean aholkulari bezala.

EUKids Online sarearen barne, Espainiako taldea Euskal Herriko Unibertsitateko UPV/EHUko ikerketa talde batek osatzen du, Maialen Garmendia soziologoak gidatzen duen ikerketa taldea hain zuzen. Ikerketa talde hau da, Espainiako gaztediaren *online* bizitza ikertzen duena. Bestalde, Espainia mailan haurren segurtasunarekin erlazionatutako ekintza instituzionaletan aholkulari gisa lan egin du INCIBE nazio mailako ziber segurtasunerako agentziarekin elkarlanean.

Liburu honetan, interneteko erabileraz herrialde ezberdinetako hainbat adituk egin dituzten hausnarketekin bilduma bat da osatu da, Estefania Jimenez, Maialen Garmendia eta Miguel Angel Casadok koordinatuta. Europa eta Latinoamerikako herrialde ezberdinetan burututako ikerketen emaitzak zer eman duten kontatzen digute, emaitza hauek adituengan eragin dituzten hausnarketak ere bilduz.

Kapitulu bakoitza gai zehatz batean zentratzen da, honela: cyberbullying, sexting, ezezagunekiko kontaktuak, gehiegizko erabilera, genero ikuspegia, eskolako internet erabilera edo familia eta eskolaren bitartekaritza zertan diren azaltzen digu, azkenik politikak hartu beharreko neurriez aritzeko. Gai guzti hauen ezagutzara hurbiltzen gaitu bilduma honek.

Lehenengo kapituluan, Sonia Livingstone *London School of Economics and Political Science*ko ikertzaileak idazten digu. Soniak dioenez, gaur eguneko gizartean gero eta hedapen zabalagoa dute Internet bidezko jarduerak eta azpiegiturak, ondorioz gero eta nekezago bereizten ditugu *online* egiten ditugun jarduerak, *offline* egiten ditugunekin. Askotan zaila egiten zaigu baita interneten ditugun aukerak eta egon daitezkeen arriskuen artean bereiztea. Soniak baina haurrengan pentsatuz ondorengo galdera hauek egiten ditu: Nola bizi dute haur eta nerabeek kontu hau? Noski zer ikusi handia izango du, gazteek jasotzen duten ezagutza digitalak, hezkuntza motak eta interneten bitarteko esperientziak. Bestalde, internetek eskaintzen dituen zerbitzuak haurrei egokituak al daude? Praktika onetara zuzenduak dira ala engainua, intentzio txarra edo beste batzuen interesen zerbitzura daude?

Soniak Livingstone'k dioenez, internetek eskaintzen dituen aukerak eta arriskuen artean bereiztea ezberdina da ondo egokitzen diren haur eta gazteen gehiengoarentzat, ahulagoak edo zaurigarriak diren gazteenentzat baino. Gazteei atsegina zaie internet erabiltzea, etengabe sortzen ari diren *online* eskaintza berriei emozioak sortarazten dizkiete nerabeei, baina askotan arriskuak daude eta sortzen diren egoerak kontrolaezin bihurtu eta arazoak areagotzen bukatu daitezke.

Digital aro honek haur eta gazteen artean sortzen dituen ondorioak ulertzeko ikerketak egitea beharrezkoa da Sonia Livingstone'en esanetan. Egin dituzten ikerketetan, ez da beti esperotako emaitza aurkitzen eta askotan komunikabideetan hedatzen ari diren mezu alarmisten aurreikuspenak ez dira betetzen eta errealitateak kontraesanean ipintzen ditu, Macheroni G., Ponte C., Garmendia M. eta Garitaonandia C. ikertzaileek diotenez.

Ikerketa hauetako emaitzetan agertzen da haur eta gazteek gero eta gehiago eta adin txikiagoa dutenetik erabiltzen dutela internet. Beren guraso eta hezitzaileek badute beraz ardura eta zer egina, erabilera arduratsua eta segurua egin dezaten haurren bitartekari bezala.

Interneten erabilera handitzeak aukera ugari eskaintzen dizkie gazteei baina aldi berean, arriskuak ere handitu egiten dira. *Eu Kids Online* ikerketa taldeak, Europako herrialde ezberdinetan alderatu zituen haur eta nerabeen esanetan bizi izan dituzten aukerak eta arriskuak. Ikusten denez, interneteko gazteen aukera eta arriskuen arteko balantzak norabide ezberdina hartzen du herri batzuetan eta besteetan. Herrialde batzuetan interneteko aukerak hedatzearekin batera arriskuak ere gehitu egin dira, baina beste herrialde batzuetan ez da horrela gertatzen, ez baitira kasu hauetan arriskuak gehitu interneten erabilera handitu ahala. Nola gainditu dezakegu beraz herri ezberdinetan haurrek bizi duten aukera ezberdintasuna internetetikiko?

Bestalde, Sonia Livingstone'k azpimarratzen digu, interneten arriskua izateak ez duela esan nahi beti kaltea egoten denik. Honela, haurren gehiengoarentzat ez da horrela izaten eta bereziki haur gutxiengo batentzat bihurtzen dira arrisku hauek arrisku errealek eta ondorioz kaltegarriak. Sarritan komunikabideetatik jasotzen ari garen mezu alarmistek kezkatzen gaituenaren bestelako errealitatea eman daitekeela argitzen digu Sonia Livingstone'k liburuan. Kontua da haurren interneteko erabilera pribatizatzen ari dela, enpresa pribatuak dira zerbitzuak eskaintzen dizkietenak berauen erabileraren baldintzak haurren behar bereziak egokitzen ez direnean eta askotan erakunde publikoek ez dute izaten informazioerik edo esku hartzerik.

Bigarren kapituluan, Maialen Garmendiak espainiar adin txikikoen internet erabilera nolakoa den kontatzen digu. Berak dioenez, interneteko arriskuen esposizioak hazkunde bat izan du azken urteetan, batez ere telefono mugikorrek eta tabletak darabiltzaten adin txiki-koengan. Aukera gehiago dituzte interneten baina baita arrisku gehiago ere, internet edo-noiz eta edonon erabiltzen ari direnean. Hala ere, azpimarratzekoa da Maialenen ustez, arriskuen esposizioak ez duela beti esan nahi kaltea ematen denik, honela kalteak jasan dituzten gazteen zenbatekoa ez da proportzio berdinean hazi.

Haur eta gazte espainiarrak nahiz eta gero eta gehiago jabetzen diren interneten dau-den arriskuez, behar beharrezkoa ikusten du gazteen artean interneten erabilera seguru eta arduratsu baten irakaskuntza lantzea, gazteen gaitasun-digitalak garatu ezker, gehiago baliatu daitezke beraien internetek aukerekin.

Adin txikikoen kasuan, familiaren bitartekaritza garrantzitsua izan ohi da haurren interneteko esperientzian. Honela hurrengo kapituluan Cristina Ponte *Universidade Nova de Lisboa*ko ikerlariak Portugaleko gazteen artean familiaren eragina nolakoa den kontatzen digu. Bere esanetan familien bitartekaritza estiloak eraginkorrak dira haurren bizipenetan, eta haurrek etxekoekin dituzten elkarriketak gazteen interneteko praktikei zentzua emateko lagungarri izan daitezke. Baina internet entretenimendurako besterik ez erabiltzea, erabilera murriztegia egitea litzateke, bere ustez.

Gurasoen bitartekaritza murriztailea izateko joera orokorra da, bestelako gidaritza, lankidetzeta edo laguntzaile erako bitartekaritza egitea baino. Espainiaren kasuan bitartekaritza murriztailea nagusitzen da Europako beste herrialdeen batzuek bestekoaren gainetik Brian O'Neill ek dioenez. Gainera arau gehiago ezartzen dira adin txikiagoak dituztenengan nerabeengan baino eta batez ere neskeengan ipintzen dira arauak mutilengan baino gehiago. Gurasoek neskek zaurigarriago ikusten dituztelako izan daitekeela dio Gema Martinez'ek.

Leslie Haddonek ikerlariaren beste kapitulu batean, haurrek egiten duten interneten erabileraren gurasoen kontrolaz eta gainbegiratzeaz hitz egiten digu. Bere ustez gurasoen aldetik haurren interneteko erabileraren kontrola ugartu egin da, bereziki hauek gizartetik jasotzen duten presioagatik haurren segurtasuna kontrolatu beharkeoa kontua delata. Baina honek, gazteen erresistentziarekin talka egiten du askotan, gazteek pribatutasun gehiago bilatzen dutelako. Baina kontu hau ez da berria, teknologia berriak ez zeuden garaian ere belaunaldien arteko antzeko talka beti izan baita. Bi aldeen arteko konfiantza irabaztea da, nola ez irtenbidea eta horretarako seme-alabekin elkarriketa eta komunikazioa lantzea litzateke bidea.

Bizi dugun aro digital berrian hezkuntza bera ere bidegurutzean aurkitzen da, eta honetaz hitz egiten digute Jordi Busquet eta bere lankideek kapitulu batean. Eskoletan informazio eta komunikazioa teknologiak edo IKTen erabilera erronka bat da. Teknologia eta azpiegituz gain lan egiteko moduak ere aldarazten ditu teknologiak hezkuntzan, ezagutza transmititzeaz gain ezagutza deskubritzen, aldatzen eta berreraikitzen lagundu bai dezake. Bestalde, eskolak ere badu zer egina interneteko arriskuen aurrean sor daitezkeen kalteen esku hartzean, esaterako ziber erasoaren kasuan. Gai honetaz hitz egiten digu *Sevillako Unibertsitateko* Rosario del Rey'k beste kapitulu batean. Hainbat arrisku dauden interneten eta erabilera problematikoak eman daitezke, arazo hauek ulertzeko klabeak ematen dizkigu Antonia Rialek, eta arazo hauen prebentzioaren garrantziaz hitz egiten daude.

Baina gazteek badute erreakzionatzeko gaitasuna, eta arazoei aurre hartzeko gai izan daitezke, honela erresilientziaren gaiaz hitz egiten digu *Lovainako KU Leuven Unibertsitateko* Sofie Vandoninck eta Leen d'Haenens'ek. Interneteko arriskuen eragina gutxitu eta kaltegarriak izan daitezkeen egoerak kudeatzeko gaitasuna landu daiteke, baldin eta adin txikiagoak ahalduz badiugu interneten erabileran. Gizarteko eragile ezberdinek badaukate beraz zer egina haurren ahalduz digitean, familia edo eskola esaterako, honela hezkuntza planetan hezkuntza digitala materia moduan sartu behar diren ideia jasotzen da. Hezkuntza eta bestelako eragile bidezko ahalduz digitean aukerak biltzen dizkigu Antonio Garciak idatzitako kapituluan. Gazteak honela parte hartu dezakete sare sozialetan esate

baterako ekarpen aktiboak eginez, baita ere edukien sortzaile gisa edo lan kolaboratzaileetan partaide bihurtu daitezke, eta honela interneten paper aktiboa jokatu dezakete, hartzaille pasiboak izan beharrean. Haurrak kontsumitzaile digital bezala internetetik jaso ditzaketen onurak eta kalteak azaltzen dizkigu Charo Sadabak, eta haurren kontsumo digitalak har ditzakeen forma ezberdinei buruz hausnartzen digu.

Erakunde publikoen aldetik, adin txikikoen internet erabilerari buruzko politikak hartzen duten garrantzia aipatzen da *Dublin Institute of Technology*ko Brian O'Neill'ek idatzitako kapituluan. Bere esanetan, aldaketa teknologikoen abiadura kontuan izanik, eta adin txikikoak berauen lehen erabiltzaileak direla jabetuta, arduradun politikoei lan handia dute, batetik, adin txikikoen babes zaindu beharra daukatelako oinarrizko eskubide bezala, legez kontrako edukia eta eduki kaltegarriak ekidinez esate baterako. Eta aldi berean, edozein herritarrek daukan bezala, adin txikikoei ere ziurtatu behar zaie internetek eskaintzen dituen aukera ezberdinen eskuragarritasuna.

Liburuaren azken hiru kapituluak Latinoamerikako errealitateari eskainiak dira, bertako hainbat herrialdeetan *Kids Online*'eko ikerketak bideratu direnez, herrialde bakoitzeko interneten erabileraren berezitasunak komentatzen dira, hartu beharreko neurri politikoetarako lagungarri diren ezagutzak. Txileko haur eta nerabeen inklusioa digitalaz eta beren interneten erabilerak eta gaitasunak deskribatzen dira. Baita ere, Brasilgo haurren interneteko sarbidea eta erabilera aztertzen da. Eta azken kapitulu batean, Latinoamerikako hainbat herrialdeetako interneten erabilera ezberdintasunen inguruan hitz egiten da. Latinoamerikan interneten erabileran ezberdintasun nabarmenak daude herrialdez herrialde eta baita ere herrialde bakoitzaren barnean, landa zonalde edo hiritarren artean edo maila sozioekonomikoen arabera. Badira zenbait ahalegin bereziki hezkuntza arloan, politika publikoak bultzatzeko edo ikerketak bideratze aldera, baina berauen hedapena eta sakontasunaren premia azpimarratzen dute egileek.

Laburbilduz, liburu honek erakusten digunez, internetek aukera eta onura ugari eskaintzen dizkigu baina aldi berean arriskuak ere badaude eta arazo sortzaile bihur daiteke bere erabilera ezegokia egiten bada. Adin txikikoak babestu beharra eta aldi berean ahaldundu beharra dagoela gogoratzen digute adituek. Haur eta gazteek interneten aurkitu ditzaketen arriskuei aurre egin eta eskaintzen diren aukera ugarietara baliatu daitezkeen, heziketa lana ezinbestekoa bihurtzen da. Liburu honetako edukia interesekoa izan daiteke beraz, haur eta gazteekin lanean ari diren hezitzaile, ikerlari eta bestelako eragileentzat, hauek internet erabileraren errealitatea ezagutzuz esku hartze egokiak egin ditzaten.

Nekane Larrañaga